

DEIALDIA  
ERRESIDENTZIA ARTISTIKOAK

2017

[WWW.BADBILBAO.EUS](http://WWW.BADBILBAO.EUS)  
[WWW.BILBAO.EUS](http://WWW.BILBAO.EUS)



**BILBOKO UDALEKO KULTURA SAILAK, BILBAOESZENAREN  
– BILBOKO BALIABIDE ESZENIKOEN ZENTROAREN  
BITARTEZ, ESZENAKO SORKUNTZA BULTZATZEKO  
“ARTISTAK EGOITZAN” PROGRAMAREN  
BEDERETZIGARREN EDIZIOA DEITU DU.**

2017ko deialdian parte hartu nahi duten EUSKAL KONPAINIEK ETA ARTISTEK **MARTXOAK 12** arte dute proposamenak aurkezteko eta BilbaoEszenak horietatik lau proiektu hautatuko ditu; **3.000 euroko** laguntza ekonomikoa eta laguntza artistiko eta teknikoa eskainiko dizkie.

**Egoitzetako bat euskarazko proiektu onenarentzat izango da eta besteak Euskal Herriko konpainia eta artisten proiektuentzat edozein hizkuntzatan.**


Artistak Egoitzan Bilboko Kultura Sailak hiriko arte eszenikoen esparruan ikerketa eta berrikuntza sustatu nahian antolatzen duen programa bat da.

**INFORMAZIOA ETA OINARRI OSOAK  
HELBIDE HONETAN:**

**[www.badbilbao.eus](http://www.badbilbao.eus) / [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)**

Interesa duten artista eta konpainiek [bilbao.eus](http://bilbao.eus) eta [badbilbao.eus](http://badbilbao.eus) web orrietan aurkituko duten inprimaki ofiziala bete beharko dute eta proiektuaren txostenarekin pdf-a ere aurkeztu.

Goian agertzen diren web orri bietako baten bidez aurkezten ez diren proposamenak ez dira onartuko.

A hand is shown on the left side of the frame, holding a large, billowing cloud of white powder or dust. The powder is illuminated from the left, creating a bright, ethereal glow against the dark background. The powder appears to be falling or being released from the hand, creating a sense of movement and texture. The background is a deep, dark black, which makes the white powder stand out prominently.

**Bilboko Udaleko Kultura Sailak**, BilbaoEszenaren Bilboko Baliabide Eszenikoen Zentroaren bitartez, "Artistak Egoitzan" programaren **2017ko** deialdia ireki du. Programa hau, duela zortzi urte, gure Hiribilduan arte eszenikoen alorrean ikerketa eta berrikuntza sustatzeko eta bultzatzeko xedez martxan jarritako ekimen berritzailea da. Deialdian parte hartu nahi duten konpainiek edo artistek **2017ko martxoaren 12 arte aurkeztu ahal izango dituzte euren sorkuntza proposamenak**. BilbaoEszenak lau arte proiektu aukeratuko ditu. Horien helburu nagusiak proposamen eszenikoak sortzea, ikertzea eta zabaltzea izango da.

Euskal Herriko konpainien eta artisten proiektuak bakarrik aurkeztu ahal izango dira.

"Artistak Egoitzan" programaren helburu nagusia artistei eta artista taldeei laguntzea da, arlo eszenikoetan sorkuntza edo ikerketa prozesuak garatzeko baliabideak eskainiz (ekonomikoak, teknikoak, prestakuntzakoak edo laguntzakoak, etab.) eta batik bat, eszena berriekin zerikusia duten, interes zehatz bat sortu eta izaera anitza duten arloetan, ardatz nagusia antzerkia eta dantza izanik, diziplina tradizionalagoekin erlaziozatuak proiektuak baztertu barik.

Programa honetan, Bilboko Udalak, BilbaoEszenaren bidez, helburu bi lortu nahi ditu: batetik, **arte eszenikoan esparruko arte sorkuntza sustatzea**, eta, bestetik, garapen eta ikerketa prozesuak bultzatzea, batez ere, dramaturgia berriak ardatz nagusia izanik. Halaber, hirugarren helburua ere aipatu behar da, sorkuntzako talentua aurkitzera eta erakartzera bideratua, ekoizpen garapen prozesurako sarrera erraztuz.

#### **PARTAIDEAK**

Programa honetara sorkuntza edo ikerkuntza eszeniko garaikidearen lan-prozesuetan BilbaoEszenarekin lan egin nahi duten Euskal Herriko talde edo artistek aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak. 18 urtetik gora izan behar da parte hartzeko.

#### **EGOITZAREN IRAUPENA**

Egoitzen iraupena 25 egunekoa izango da gehienez eta epe horretan modu intentsiboan gauzatuko da, aurkeztu eta hautatutako proiektu artistikoan oinarrituta.

Egoitzak BilbaoEszenaren lokaletan eta hiriko beste espazio eszeniko batzuetan garatuko dira; ahal dela uztailan, abuztuan, irailean eta **urri erdialdera arte**.

**Proiektu bakoitzerako dirukopurua 3.000 eurokoa izango da.**

Horrez gain, aukeratutako pertsonak, euren sorkuntza prozesuak ikus-entzuleen edo sektoreko profesionalen aurrean aurkezteko aukera izango dute, Bilboko Antzerki eta Dantza Garaikideko Jaialdian, BAD-en, edo Udalak bultzatutako beste edozein ekimen eszenikotan.

Laguntzak lortzeko, [bilbao.eus](http://bilbao.eus) edo [badbilbao.eus](http://badbilbao.eus) web orrietan aurki daitekeen galdetegi ofiziala behar bezala bete beharko da.

